

Ezterenzubi

Aurkibidea

Udalerria: Ezterenzubi

Sarrera



Ezterenzubi Garazi eskualdean kokatzen den Nafarroa Behereko udalerria da. Nafarroa Garaiarekin muga egiten du hegoaldean; Iparraldean Ahatsa-Altzieta-Bazkazane eta Aintzila ditu mugakide; ekialdean Lekunberri eta mendebaldean, berriz, Eiheralarre.

- **Biztanleak:** 355
- **Euskaldunak:** %78,01

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **8**
- Zintak: **8**
- Pasarteak: **44**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **44**

Proiektuak

- Diasporako Ahotsak
- Euskal kultur erakundearen artxiboak

Hizlariak

Louis Biscaichipy (1920)



Louis Biscaichipy Ezterenzubiko Agerria etxean sortu zen 1920ko apirilaren 22an. Urte bat zuenean, familia Eiheraldean plantatu zen. 7-11 urte artean, Ahatsako osaba baten etxean egon zen, bere sortetxetik 3 oren bideetan, oinez. 11 urtetan Eiheraldera itzuli zen. Lan ttipi franko egin zituen bertan, 14 urtetan bortura artzain joan aintzin (Artxilondo). 19 urtetarik hara, artzaingoan segitu zuen lau urtez, beste etxalde batzuendako. 1944an Esterenzubira ezkondu zen, eta ezkontza hortarik 7 haur sortu ziren. 1969an alargundurik, Ameriketara abiatu zen. Kalifornian 6 urte pasatu ondoren, etxera itzuli zen artzaingoan segitzeko.

Michel Curutchet (1936)



Michel Ezterenzubi Bidartean sortu zen 1936an, anaia bikiarekin batera. Hiru hilabete zituztenetik 10 urtera arte, bi anaiak aitaren etxondoan haziak izan ziren (aitamak, bizitzeko, Ameriketara joanak zirelako). 1949an familia osoa (hirugarren anaia bat sortu zen bitartean Ameriketara) plantatu zen definitiboki Bidartean, amaren etxondoan. Michelek berak, zenbait urte berantago, aitaren segida hartu zuen. Laborantza eta artzaingoarekin batera, kontrabandak sos iturri estimagarria ekarriko zion.

Maite Etchamendy (1942)



Ezkonduz geroztik, Marie Therese Curutchage. Mendiburia etxaldean sortua, zazpi haurridetan gazteena zen. Aita bertakoa zuten (aitatxi Kalifornian izana zen, artzain) eta ama ere Ezterenzubikoa (baina sortu zenean bere etxaldea Lekunberri zen). Maitek hamar urte zituenean, ama galdu zuten. 14 urtera arte ibili zen eskolan eta gero pare bat urtean sukaldean eta josten ikasten, beste eskola batean. Bi anai eta bi osaba Ameriketara ziren, eta 1960an Maite eta bere ahizpa ere bertara joan ziren, Fenixera (Arizona). Haurzain aritu ziren bi urtean, bakoitza familia batean, eta gero Bakersfieldera joan ziren, Wool Growers jatetxera lanera. Maite haurzain ere ibili zen, jatetxeko lanarekin batera. Jean Baptiste Curutchage ezagutu zuen (Wyomingera artzain joana eta handik Chinora; Bakersfieldeko Pirenees euskal ostatuan ari zen kantinero). Ezkondu, eta bi seme-alaba izan zituzten. 1971n Chalet Basque jatetxea ireki zuten, Bakersfielden. Bakersfieldeko euskal klubeko kide aktiboak izan dira: euskal kantak erakusten ditu, koruan aritzen da, apaizari laguntzen dio... palan jokatzen ere erakusten zien neska txikiei. Elisabeth alaba eta Mattin anaia ere elkarrizketatu genituen.

Mattin Etchamendy (1939)



Mendiburia etxaldean sortua, zazpi haurridetan seigarrena zen. Aita bertakoa zuten (aitatxi Kalifornian izana zen, artzain) eta ama ere Ezterenzubikoa (baina sortu zenean bere etxaldea Lekunberri zen). Mattinek hamalau urte zituenean, ama galdu zuten. 14 urtera arte ibili zen eskolan eta gero pare bat urte Laborantzako eskolan, Donibane Garazin. Lau anai-arreba eta bi osaba Ameriketara ziren, eta 1964an Mattin ere bertara joan zen, Fenixera (Arizona) artzain, anai baten ardi-konpainiara. 1965ean ardi-konpainia sortu zuen, Jean Baptiste anaiarekin batera. Gero Bakersfieldera joan zen eta han jarraitu zuen ardiekin, bere kasa. Euskal Herrira joan zelarik, Maitexa iruritarra ezagutu zuen (Donibane Garazin ari zen lanean). 1971n ezkondu, eta Bakersfieldera joan ziren bizitzera; lau seme-alaba izan zituzten. Mattinek liburu bat du idatzia: *Urruneko Mendebalean artzain* (Maiatz, 2012). Maite arreba ere elkarrizketatu genuen, Bakersfielden.

Gracianne Gastenaga (1928)



Ezkonduz geroztik Uhalde. Ama Ezterenzubikoa zuen, aita Sunbillakoa (Donamaria). Lau senidetan hirugarrena, gutxi ibili zen eskolan. Baserrian bizi ziren eta beti bazen lana han (ardiak, behiak, txerriak...). Jean Baptiste Uhalderekin ezkondu zen (Zaron zebilen lanean, teilak egiten) eta 1951n Ameriketara joan ziren, Fresno (Kalifornia), 13 hilabeteko haurrarekin. Basque Hotelean aritu ziren lanean urtebetez eta gero San Franciscora joan ziren bizitzera; guztira lau seme-alaba izan zituzten. Gracianne laundry-etan (arropa garbitzeko negozioak) egin zuen lana eta senarrak baratzeen negozioan. Euskal etxeko kide aktiboak izan ziren; abesbatzakoa ere izan zen, oso kantari ona.

Charles Lanathoua (1934)



Ezterenzubin jaioa, guraso biak hangoak zituen. Iturburia baserrian bizi ziren. Zortzi haurridetan hirugarrena zen Charles. 14 urte arte eskolan ibili zen eta gero baserriko lanetan, soldadu joatea egokitu zitzaion arte. Alemanian, Marokon eta Aljerian ibili zen soldadu. Bueltan, Baionako hotel batean egon zen zenbait hilabetez, sukaldari-laguntzaile. 1958an Chinora (Kalifornia) joan zen; anaietako bata bertan zen lanean, behi-jezten. Charles euskal jatetxe batean hasi zen, platerak garbitzen, La Puente. Gero Rollend Highseko jatetxe batean egin zituen 28 urte, sukaldari. Mexikoko emakume batekin ezkondu zen eta alaba bat izan zuten. 1972tik Mira Loman bizi da, Chino ondoan. Chinoko euskal etxean elkarriketatu genuen.

Marie Jean Maitia (1931)



Ehulenia baserrian jaioa (ama bertakoa zuen eta aita ere auzokoa). 17 senidetan laugarrena, 12 urte zituela haurzain joan zen beste baserri batera eta 14rekin Ezterenzubiko jatetxe batean garbitzen eta zerbitzatzen egon zen. 18 urterekin Bordelera joan zen, gaztelu batera lanera, sukaldeko laguntzaile moduan. Hantxe ikasi zuen frantsesa. 24 urterekin Ameriketara joan zen, Gardnervillera (Nevada), Pyrenees Basque Hoteleran lanera, sukaldari. Ordurako anaia bat zuen Ameriketara (Chinon); senide gehiago ere joan ziren gero, Californiara. Hotelean lanean zegoela, senarra izanngo zuena ezagutu zuen, kamioilaria. Salt Lake Cityn hazia zen hura eta ezkondu eta hara joan ziren bizitzera. Seme bat eta alaba bat izan zituzten. 1976an senarra hil zitzaion eta lanean hasi zen berriro: etxeak garbitzen, zaharrak zaintzen... Jean semea ere elkarriketatu genuen.

Michel Tihista (1949)



Michel Tihista 1949an sortu zen Uharte-Garazin, emagintsaren etxean, baina berez Ezterenzubiko Beherobi auzoan den Zubipunta ostatuko semea da. Familia horretan ostalerrak izan dira belaunaldiz belaunaldi (Michelen belaunaldia bosgarrena da). Michel seme bakarra izan da. 1973an ezkondu zen eta bere seme bakarrak ostatuaren segida hartua du gaur egun. Zubipuntako ostatua famatua izan da mugaz bi aldetako ainitz artzain eta kontrabandista pasatzen edo/eta egoiten baitziren hor. Gaur ehiztarien, arrantzaleen eta turistek ganik ere ezagutua da. Michelek 59 urte zituen elkarriketa egin zitzaionean eta artean sukaldaritzan segitzen zuen ostatuan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Ezterenzubiko haur baten bizia 11 urte artio (1920-1931) (EZB-001/001)

Louis Biscaichipy herritik 8 kilometrotan bizi zen, Eiheraldia baserrian. Hortakotz, burrasoek igorri zuten osaba baten etxera Ahatsara, han eskola eta eliza hurbilago zirelotz. Komunionea egin orduko, 11 urtetan, etxera berriz itzuli nahi izan zuen.

2. Bizia bortuan Artxilondon (EZB-001/002)

Hamalau urtetik hara, Baxenabarreko gaztea artzain joan zaiteken, maiatzetik urrira, bortura, . Han ardiak zaintzen eta deitzen zituen, bai eta ere gasna egiten. Batzutan, artzain bat baino gehiago ziren etxolan. Louis Biscaichipy 6 urtez egon da artzain Artxilondon.

3. Ogia eta mestura (EZB-001/003)

Ogia astero erretzen zen, su ederra eginez labean. Su ederrak adar ainitz eskatzen zuen eta egurra tiratzea menditik behiekin. Ogi irina eiheratik ukaiten zen, arto bihiaren truke (100 kg ogi irin 75 kg arto bihiaren truke). Eguneroko ogiaz aparte, egiten zen ere zopako ogia, baratxuri saldan trenpaturik jateko. Mestura ere egiten zen : goizetan xigorturik (mestura gorritzekoan) eta arratsetan esnari nahasirik hartzen zen, baratxuri saldatik landa.

4. Mesturaren egitea (EZB-001/004)

Mestura arto irinarekin egiten zen (artoa garai hartan etxe guzietan egiten zen eta eiheran ehaiten). Aska berean egiten zen ogia eta mestura. Mesturaren pasta (« ohotsa » deitzen zena : irina+ura+gatza+altxagarria) burdinezko zerko batean ezartzen zen, zerko horren zola eta inguruak gaztain ostoz estali eta. Zortzi ahoren asetzeko 3 zerko erre behar ziren astero.

5. Eguneroko eta besta egunetako janaria (EZB-001/005)

Baxenabarreko etxaldetan, goizetan baratxuri salda eta arto eta esnerekin gosaltzen zen. Eguerdian saltsak jaten ziren (atzarkia eta honekin batera tripa salda),edo xerrikia. Xerria eguneroko janaria zen (bi xerri hiltzen ziren etxalde askotan). Arratsaskarietan : ogi eta gasna, edo ere xokolatea (erosten zena, kafea eta zukrea bezala) ematen zen. Arnoa bi pinta ta erdiko xahakoetan erosten zen (2 xahakotra astean). Besta egunetan, oilaskoa eta oiloa emaiten zen. Oiloa saldan irakin eta, haragiz beterik xerbitxatzen zen (« farcie »).

6. Igandetako eguna Ezterenzubin 1930 hamarkadan. (EZB-001/006)

Igandetan 16-17 urteko gazte andana ederra (60-70) biltzen zen Ezterenzubiko elizan, bai goizeko mezan, bai arratsaldeko bezperetan. Ondotik pilotan eta musean ere aritzen ziren ilunean berriz etxera sartu arte.

7. Donibane Garaziko merkatua (EZB-001/007)

Merkatu egunean, kabalak (ahatxe, atzar) oinez jeusten ziren herrira eta handik Hariñordokiren autoak zaramatzan Donibane-Garazira. Axuriak astoz eramaten ziren, zangoak estekaturik (6 axuri asto batean). Garai hartan ez zen biderik herrira heltzeko.

8. Mutil ezkondu arte (1940-1944). (EZB-001/008)

XX.mendearen lehen erdian, hain ziren familiak handiak (10-12 haur banabeste), adin batetik goiti eta ezkondu arte gazte guziak joaiten ziren mutil (mutikoak) edo segi (neskatoak). Lagunek bezala egin zuen beraz Louis Biscaichipy-k : mutil egon zen 3 urtez (haragitako aharien zain lehenik, artzain eta gasna egiten ondotik) bere emaztearen etxondora ezkondu aintzin, Ezterenzubi Benttara. Honat ezkondu bezain laster (1944), bere emaztearen 9 haurrideak joan ziren heiek ere etxetik kanpo, mutil edo sehi izaiteko.

9. Kontrabanda Esterenzubin (EZB-001/009)

XX.mendearen lehen erdian, laborari etxetako lana ez zen erraza : dena eskuz egiten zen (tailuz, aitzurrez, arrastaluz). Beharrik belaunaldi desberdinek, xahar eta gazte, elgar laguntzen zuten. Halere, holako lanek ez zuten sos handirik erakartzen. Mugatik aski hurbil ziren laborari etxeetan, preziagarri izaiten zen kontrabandaren ekarpena (behorrak eta mandoak).

10. Etxe berri baten eraikitzea 1958an Ezterenzubiko mendian (EZB-001/010)

Garai hartan etxe berri baten eraikitzea ez zen afera ttipia. Alta gertatzen zen laborari etxe batzu ttipiegiak eta xaharregiak izaitea familia baten aterbetzen segitzeko. Louis Biscaichipyk erabakia hartu zuenean, lehenik aminarriba konbentzitu behar izan zuen eta « garbitasunak » edo « arrañamenduak » egin (azken 3 belaunaldietako ondoriotasuna ez zen sekulan argitua izan).

Ondotik materiala guzia (zura, blokeak, sablea) etxera hurbildu behar izan zuen eta honek berak 2 urte iraun zuen !

11. Ameriketara abiatzea 1969an (EZB-001/011)

Baxenabarreko etxalde askotakoak, goiz edo berant, joan dira Ameriketara. Louis Biscaichipy alargundu denean, 49 urtetan, joan da arrebarengana Kaliforniara, etxaldea eta 6 haur utziz seme zaharrenaren gain (haur gazteenak 9 urte zituela). Han egon da artzain 6 urtez (1975 arte).

12. Artzain bizia Kalifornian (EZB-001/012)

Udan larretan egoiten ziren artzainak eta neguan luzerna tokietan. Nagusiarekilako harremana ez zen beti ona. Louis Biscaichipy, lehen 6 hilabeteak iragan eta, nagusiz aldatu zen. Gainerateko 5 urtez, biziki harreman ona ukan du bere « majordome » delakoarekin.

13. Artzain bizia neguan Kalifornian (EZB-001/013)

Neguan, deizteko tenorean, artzainak luzernetara jeusten ziren. 10-15 luzerna hektara pezaka hesten zituzten, korraleak eginez toki batean eta berantago deseginez beste toki batean ezartzeko.. Louis Biscaichipy-k dionaz janari ona ukaiten omen zuten Kaliforniako artzainek ; arnoa ere ematen zieten.

14. Artzain bizia udan Kalifornian (EZB-001/014)

Udan larretan ("loom"-etan) egoiten ziren artzainak. Ameriketako armadak Kaliforniako larre gunee batzu hesten zituen udan, 700-800 soldadoek beren ariketa militarrik hor egin zituzten (Nafarroako Bardeetan bezala). Artzainek gunee horietarik kanpo atxiki behar zituzten beren ardiak. Uda ederrak iragaiten zituzten artzainek, arratsaldeak aski trankil zituztelarik iluntzea arte.

15. Ardien erditzea (EZB-001/015)

Buruilean hasten dira erditzen ardiak eta segitzen dute eguberri arte. Asko maite zuen sasoin hori eta bereziki ardi ernarien segitzea. Azken urteetan, mendira joaiteko orde, Louis ardi berankorrekin egoiten zen behearean.

16. Kaliforniako artzainaren oporrak (EZB-001/016)

Artzainak bakantzetaz baliatzen ziren han berean zauzkaten familiaren eta herritarren ikusteko. Batzutan Euskal Herrira ere etortzen ziren. Louis Biscaichipy-k Chinoko arrebaren etxean iragaiten zituen bakantzak (25 egun urtean). Salbu 1973an, lau urteren buruan, bere gozalabaren ezteietaz baliatu zen Euskal Herrira itzultzeko eta bere familiaz gozatzeko. Bi urteren buruan, 1975ean, definitiboki sartu zen Ezterenzubira bere semea Jean-Pierre laguntzeko etxaldeko lanetan.

17. Ameriketara irabazi dirua (EZB-001/017)

Ameriketara joaiteko arrazoiatarik bat ekonomikoa zen : lan bat lortzea eta dirua irabaztea. Baxenabarreko etxalde batzu xutik egon dira « Amerikanoen » diru laguntzari esker. Louis Biscaichipy-k ere bere familia lagundu ahal izan du han irabazten zuenarekin. Artzaina, bere mendi ta larretan, gastu handirik egin gabe bizi baitzen.

18. Bizia Esterenzubin XX. mendearen lehen zatian (EZB-002/001)

1930. hamarkadan, ez zen errex familia baten biziaraztea Baigorri-Garazi aldeko herri menditsuenetan. Ezterenzubi Bidarteko bikote gazteak (gure informantearen burrasoak) Ameriketara joan behar izan zuen 1936an bere bi haur gazteak herrian utzirik. Familia ez da hamar urteren buruan baizik elgarretaratuko eta handik laster etxondoan berriz plantatuko laborantxa-artzaintzaz bizitzeko.

19. Gerlak (1939-1945ekoa eta Algeriakoa) (EZB-002/002)

Beste euskaldun frango bezala, gazte gaztea (23 urte) joan zen Algeriako gerlara Michel Curutchet 1959an, eta han egon bi urtez. 1939-1945eko gerla denboran aldiz, oraindik haurra zen eta osaba-izebaren etxean bizi zen. Osabak jendeak pasatzen zituen mugaz bestalde eta deportazioan hil zen.

20. Kontrabandaren garrantzia tokiko bizian (1955-1992) (EZB-002/003)

Michel Curutchetek dionaz, kontrabandan hasi denean, herri guzietan baziren guardiak. Ezterenzubiko postan, 5 guardia baziren. Muga handienak ziren Irupile, Errosate. Azken urteetan bereziki (1985-1992), azkar zen kontrabanda. Ezterenzubiko etxeen erdiak egiten zuen kontrabanda, nahiz ez zitaiken xuxen jakin.

21. Kabala kontrabanda (1955-1992) (EZB-002/004)

Michel Curutchet-ek xerriak, ahatxeak eta behiak goiti eramaten zituen (bestaldera) eta zaldiak eta ardiak beheiti. 1985 artio, komertzio handiena zaldiekin eta ardiekin egin da. Michel Curutchet-ek kabalak « garantian » hartzen zituen, behar zen tokira eraman arte.

22. Kontrabanda : lanaren antolaketa eta baldintzak (EZB-002/005)

Michel Curutchet-ek 6-7 gizon enplegatzen zituen. Kabalak oinez pasatzen zirenean, 6-7 gizon behar ziren 24 zaldientzat, aldiz hiru aski ziren 120 ardientzat. Bide gudronatuari esker, garraioa kamionez egin da bainan ez du honek peon beharra ttipitu (bidearen idekitzeko espioi asko behar zirelako). Ezterenzubitik Orbaizeta, Arnegi, Luzaide, Iriberrri, Garralda, Burgeteko mugetaraino eramaten zituzten kabalak. Mugan baino gehiago, merkatuan mintzatzen ziren kontrabandistak. Michel Curutchet harreman bereziagoa ukan du Orbaizetarekin.

23. Kontrabanda : mugaz gaindiko harremanak (EZB-002/006)

Ezterenzubitik Orbaizeta, Arnegi, Luzaide, Iriberrri, Garralda, Burgeteko mugetaraino eramaten zituzten kabalak. Mugan baino gehiago, merkatuan mintzatzen ziren kontrabandistak. Michel Curutchetek harreman berezia ukan du Orbaizetarekin.

24. Haurtzaroa Esterenzubin (1950 hamarkadan) (EZB-003/001)

Garai hartan, haur batzu emaitzaren etxean sortzen ziren, eta ez etxean. Michel Tihista horietarik da. Ondotik Beherobi auzoko eskolan ibilia da, beste eskola bat bazen karrikan.

25. Zubipuntako ostatua : artzainen geldigunea (EZB-003/002)

Orbaizetako eta Garaziko artzainak pasatzen ziren Zubipuntatik primaderan bortura igaitean edo neguan handik jeustean. Goitikoan, Orbaiztarrek ardiak hor deitzi eta, Zubipuntakoei uzten zieten gasna, janariaren eta loaren truk.

26. Zubipuntako ostatua : Orbaiztarren geldigunea (EZB-003/003)

Orbaiztarrak Garaziko merkatuan ibiltzen ziren astelehenetan. Handik etxeratekoan, Zubipuntan gelditzen ziren. Orbaiztarra jende ona zela, dio Michel Tihistak.

27. Esterenzubi eta Orbaizetaren arteko ezkontzak (EZB-003/004)

Bi herrien arteko ezkontza bat ezagutzen du Michel Tihistak : Orbaizeta Merinoeneko Pedrorena Esterenzubitar andere batekin. Orbaizetako neska gutti jiten zen Esterenzubira ; Esterenzubiko neskak aldiz joaiten omen ziren Orbaizetara.

28. Orbaizetako artzainak bazketan Baxe-Nafarroan (EZB-003/005)

Hazparnen, Iholdin, Irisarrin barna ibiltzen ziren neguko bazketan Orbaiztarrak.

29. Lehengo eta oraiko Orbaizeta (EZB-003/006)

Ainitz etxe zaharberrituak izan omen dira, azken urte hauetan, Orbaizetan. Dirudi, gazte frango aldiz, urrundu direla herritik.

30. Orbaiztarrak Garaziko ferian (EZB-003/007)

Bazko astelehenez eta San Nikolasetan (abendoaren 6a) iragaiten zen Donibane-Garaziko feria. Orbaiztarrak beren mozkinen saltzea etortzen ziren eta memento goxo baten pasatzera. Etxeratekoan Zubipuntan gelditzen ziren.

31. Beherobiko bestak (EZB-003/008)

Orbaiztarrak eta artzainak orokorki (Urkulu, Errozate, Harpea) etortzen ziren Beherobiko bestetara, buruilaren bigarren igandean. Besta Zubipuntan egiten zen, jatekoa, edatekoa eta musikarekin. Beherobik ez ditu gehiago bere bestak egiten, itzala ekartzen ziolako karrikako edo plazako bestari.

32. Orbaiztarren harremanak gaur egun Zubipuntarekin (EZB-003/009)

Orbaiztarrak, bereziki artzain xaharrak, beti gelditzen dira Zubipuntan. Gaurregun, ez dira oinez ibiltzen, baizik eta autoz.

33. Animalen kontrabanda Esterenzubin (EZB-003/010)

Zaldi kontrabanda Espainia aldetik Frantzia aldera egiten zen, ahatxearena aldiz beste sentsura. Kabalak elgarri estekatzen ziren.

34. Kontrabanda Esterenzubin : beste ekoizpenak (EZB-003/011)

Animaleak ziren gehienik pasatzen : kobre gutti, artillerik batere ez.

35. Nor ari zen kontrabandan ? (EZB-003/012)

Michel Tihistak dionaz, kasik herri guzia, apeza salbu, ari zen kontrabandan. Garai batean, bizpairu talde ari ziren zaldi kontrabandan, baina ez ziren etsaiak. Bazen lana denendako.

36. Kontrabandako tratuak (EZB-003/013)

Donibane Garaziko Navarre ostatuaren aintzinean biltzen ziren kontrabandistak, astelehenetan, merkatu egunean.

37. Guardiekilako harremanak (EZB-003/014)

Donibane-Garaziko guardiak ez ziren gaixtoak ; ardura heldu ziren Zubipuntara musean aritzera.

38. Kontrabandan hasteko adina (EZB-003/015)

Gazterik hasten zen kontrabandan : 16-17 urtetan.

39. Kontrabandako « meza ixilak » (EZB-003/016)

Kontrabanda munduan dabiltzanek badakite ez direla gauza guziak erraiten. Zubipuntako Michel ez da oroit gertakari ilun edo itsusirik gertaturik, Esterenzubin, kontrabandisten artean.

40. Zubipuntako ostatua edo Oihanzainaenea (EZB-003/017)

Michel Tihistaren ostatua Zubipuntako ostatua deitzen zuten Orbaiztarrek ; Esterenzubitarrek aldiz Oihanzainaenea (Michelen aitatxi oihanzaina baitzen).

41. Zubipuntan : akitaren egitea (EZB-003/018)

Orbaiztar artzainek Zubipuntan egiten zuten akita, beheitikoa eta goitikoa. Donibane-Garaziko guardiak ziren paper horren egileak eta artaldearen kontrolatzaileak.

42. Zubipuntan : ardi moxteak (EZB-003/019)

Garaziko artzain batzu menditik jeusten ziren ardiak Zubipuntako bordaren kontra moxteko. Ondotik bazkari eder bat egiten zuten.

43. Esterenzubiko pertsonai batzu (1950. hamarkadan) (EZB-003/020)

Michel Tihista oroitzen da Esterenzubi Indarteneko 4 ahizpa mutxurdinetaz : bere haur denboran katiximaren egiteaz eta elizaz arduratzen ziren eta herritarrek « serorak » deitzen zituzten. Xantrea ere bazen.

44. Zubipuntan : arto xuritzea (EZB-003/021)

Zubipuntako Michel Tihista arto xuritzen arizan da haur denboran.
Ostatuarekin batera, bere aitamek laborantxa ttipi bat zukaten 15 behi eta
100 ardiekin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com